

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Kirolari federatu ez profesionalek egindako kirol jardueretarako dirulaguntzen deialdiaren laburpena

Alkatearen ebazpena, 2022ko otsailaren 17koa, zeinaren bidez deialdia egiten baita lehiaketa prozedura bidezko 2021-2022ko dirulaguntzetarako, kirolari federatu ez profesionalek egindako kirol jardueretarako.

DDBN(Identif.): 611643

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/611643>).

(www.infosubvenciones.es).

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izango dira banakako kirolariak, federatuak eta ez-profesionalak, probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea da udalerrian erroldatuta dauden eta kirol federatu ez-profesionala egiten duten pertsonen dirulaguntzak ematea probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.

Dirulaguntza jaso ahal izango da legez onartutako edozein kiroletako lehiaketetan parte hartzeko eta kirol materiala erosteko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2019ko martxoaren 25eko bilkuran onetsi eta maiatzaren 22ko 59/2019 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Kirol materiala: gastuaren ehuneko 50; 100 euro, gehienez.

Lehiaketetan parte hartzeko:

Probintziako lehiaketak: 50 euro.

Probintziako lehiaketak gehi Euskadikoak: 120 euro.

Probintziako lehiaketak, gehi Euskadikoak, gehi estatukoak: 200 euro.

Estatuko eta nazioarteko txapelketak: 230 euro.

Kirol materiala eskuratzeko 100 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalean banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaitutuko egindako gastuaren ehuneko 100.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, kirol materiala eskuratzeko dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskinean ageri den ereduari, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2022ko uztailaren 1a izango da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak:

Federazio lizentzia.

Eskatutako dirulaguntzaren xede den kirol materialeko gastuari dagokion jatorrizko faktura, bai eta faktura hori ordaindu izanaren frogagiria ere. Eskudirutan ordaindu bada, igorleak zigilua jarri beharko du fakturan eta eskudirutan ordaindu dela adierazi.

Urtean zehar probetan parte hartu izanaren egutegia, egiaztagiria eta zerrenda zehatza, sinatuta, eta probok probintziakoak, Euskadikoak, estatukoak edo nazioartekoak diren adierazita.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2022ko otsailaren 17a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE